

# Familia AURREZKIA

Egin ezazu aurrekontu bat diru-sarrera eta gastuekin, zure ekonomiaren kontrola izateko

## + DIRU-SARRERAK



✓ Etxebizitzan bizi zareten pertsona bakoitzaren **soldata** eta balizko **ezohiko diru-sarrerak** hartu barnean.

## - GASTUAK

### ✓ Finkoak eta beharrezkoak



Alokairua, hipoteka, komunitatea, hezkuntza, elikadura, ura, elektrizitatea, garraioa... Batzuk aldakorrek izan ohi dira, eta beraz, kontsumo neurrizkoagoa eta kontrolatua eginez gero gastuak **murriztu** ahal izango dituzu.

### ✓ Noizbehinkoak eta bazter uzteko modukoak



**Aisia** eta **astialdira** bideratu ohi dira, adibidez jatetxeak, bidaiak, zineko sarrerak, zaletasunak, eta abar. Gastu horiek **murriztu** edo ezabatu egin ditzakezu behar izanez gero.

### ✓ Ezustekoak



**Ustekabean** sortzen dira, adibidez etxeko konponketak, autoaren matxura bat edota mediku-gastuak.

### ! Erreparatu *inurri-gastuei!*

Ordaintzen diren eta askotan inor ohartu gabe igarotzen diren **kopuru txikiak** dira. Kafe bat, kaña bat, txikle bat... Kopuru garrantzitsuak batu ditzakete, zure aurrekontua desorekatzeko moduan. Idatz itzazu, beharrezkoak ez direnak aurkitzeko!



### ! Kontuz *oporrekin eta gabonekin!*

Garai horietan ohiz kanpoko gastu asko sortzen dira, eta zure ekonomia desegonkortu dezakete. **Jar ezazu muga** bat, kontrolatuta izan ditzazun. Bestalde, zure aurrezkiekin zati bat horrelako gastuetara bidera dezakezu.



## ↓ AURREZKIA



✓ Sar ezazu gastu finko bat bezala. **Erreserba ekonomiko** bat edukitzea zuretzat lagungarria izango da ezustekoei lasaia aurre egiteko eta nahi duzuna lortzeko: bidaia bat, auto bat, ikasketak eta abar.